

AZPEITIA / Pello Añorga ipuin kontalaria bihar, astelehena, Udal Liburutegian

DV. Pasa den irailaren 22an hasi zirenetik, ipuin kontalari ugari pasa dira astelehenero haur eta gaztetxoek liburutegitik, Enparan Dorretxean. Oraingo honetan, bihar, ohi bezala, arratsaldeko 6etatik aurrera, Pello Añorga ipuin kontalaria izango da bertan. Haur Hezkuntzako 4. eta 5. mailakoei eskainitako kontakizuna izango da, hau da, 2003 eta 2004 urtean jaiotakoei eskainia. Hiru ordu laurdeneko iraupena izango du eta liburutegiko arduradunek aurreratu dutenez, garrantzitsua da orduan iristea. Kontakizuna hasiz gero ez bai-tzaio inori gelara sartzen lagako. Biharkoa ez da lehen aldia Pello Añorga ipuin kontalaria aurtengo ekitaldian Azpeitian izango den lehen aldia. Urriaren 6an ere Udal liburutegian izan zen kontalari lanetan baina orduan, 8 eta 9 urtekoei zuzenduta ekitaldia izan zen. Honen atzetik, beste hiru saio gertatzen dira: Miriam Mendozarena bata eta Maite Frankoren eskutik izango diren beste bi.